




HIU-2

SAGARDOTEGIAK

Hernaniko Ibilbide Sarea

Red de senderos de Hernani

Luzera:
Distancia: 8,6 Km.Denbora:
Duración: 2:00 h.Igoera metatua:
Ascenso acumulado: 150 m.

Ibilbidearen aurkezpena

Hernaniko hainbat sagardotegi lotzen dituen ibilbide honek baserri eta sagarrondo artetik igarotzeko aukera ematen digu. Zailtasun txikiko bide hau txotx garaian sagardotegietara doan jendeari zuzenduta dago batez ere. Herriko plazatik oinez irten eta sagardotegi ondoren autobusez bueltatu edo eta jan behar dugun sagardotegian autoa utzi eta ibilbidea egiteko aukera ematen digu.

Presentación del recorrido

Este recorrido que une varias sidrerías de Hernani discurre entre caseríos y manzanales. Se trata de un recorrido sin dificultad, dirigido principalmente a aquellas personas que en época del "txotx" visitan alguna sidrería del pueblo. Podría ser recorrido a pie desde Hernani y después de la sidrería regresar en autobús, o bien, dejando el coche en la sidrería, recorrela entero a pie.

Informazio praktikoia

Iturririk ez dagoenez ura eramatea gomendatzen da. Ez dago galtzeko arriskurik. Mendi bizikletaz bide osoa egin daitekeen arren, puntu jakin batzuetan ume txikientzako aldapatsuegia izan daiteke. Mendiko arropa arina eraman. Aproposa suerta daiteke ibilbidea egiteko: sagarondoak loretan daudenean (maiatza bukaeran), sagarrondoak sagarrez beteta daudenean (irailean), edota sagardoa egiteko prozesuan ari direnean, honek sagar usain berezi bat uzten baitu sagardotegi inguruetan (udazkenean). Oharra: Ibilbide honetako 6 eta 7 puntuen artean dagoen zatia, HIU-3 ibilbidearen zatia ere bada, bertan arreta berezia jarri beharko da aipatutako puntu hauetan.

Información práctica


Al no haber fuentes, se recomienda llevar agua. No hay peligro de pérdida. Aunque puede recorrerse en bici de montaña, en ciertos tramos, puede resultar ser demasiada pendiente para los pequeños. Llevar ropa de monte ligera. Recomendamos recorrerlo en éstas épocas: con los manzanos en flor (a finales de mayo), con los manzanos con manzanas (setiembre), o bien en la época de elaboración de la sidra, en la que apreciaremos el olor a manzana característico (en otoño). Advertencia: el tramo entre los puntos 6 y 7 de éste recorrido es compartido con el recorrido HIU-3 en sentido inverso, por lo que deberemos prestar especial atención en ambos puntos.

Hasierako puntura nola iritsi

Ibilbidea Portu auzoa zeharkatzen duen erreka zubitik hasten da, Lonja izeneko etxetik gertu. Autoz joanez gero, aparkaleku txiki bat topatuko dugu alboan.

Como ir al punto de partida

El recorrido parte del barrio Portu. En concreto del puente que cruza un riachuelo junto a la casa conocida como Lonja. De acercarnos en coche, junto a ella hay una pequeña explanada donde dejarlo.




SAGARDOTEGIAKLuzera: **8,6** Km.
Longitud:Denbora: **2:00**
Tiempo:Ascenso acumulado: **150** m.
Igoera metatua:

- | | | | |
|----------|---|------------------------------|------------------------|
| 0 | Portu auzoa - Lonja | 0 Km. | Barrio Portu - Lonja |
| | Altuera/Altitud: 10 | Datum ED50: 583416 - 4790688 | Denbora/Tiempo: 0:00 |
| | <p>Hemendik Hernaniko hirigunearen kontrako norabidean dagoen asfaltozko bidea hartuko dugu. Aurrerago, bidea autobidearen azpitik pasako da. Pixkanaka Osinaga auzora iritsiko gara eta zerrategia eskuinetara utzita, etxe multzoa zeharkatuko dugu.</p> <p>Desde el puente tomaremos el camino de asfalto que nos aleja del casco urbano de Hernani, que dejaremos a nuestra espalda. A pocos metros pasaremos por debajo de un viaducto. Pronto llegaremos al barrio Osinaga, un grupo de casas que atravesaremos dejando a nuestra derecha una serrería.</p> | | |
| 1 | Osinagako zubia | 0,7 Km. | Puente de Osinaga |
| | Altuera/Altitud: 10 | Datum ED50: 583569 - 4789992 | Denbora/Tiempo: 0:15 |
| | <p>Segituan, Urumea ibaia zeharkatzen duen zubi esekia ezkerretara utziko dugu. Aurrerago, lehenengo sagardotegiak ikusten hasiko gara. Berehala, jarraitzen ari garen asfaltozko bideak berriro ere erreka bat zeharkatzen du zubi baten gainetik. Zubi hori zeharkatu eta eskuineko bidea hartuko dugu Loidi etxea ezkerrean utziaz.</p> <p>En seguida dejaremos a nuestra izquierda el primer puente colgante. Pronto comenzamos a ver los primeros manzanos y sidrerías. Continuamos el camino de asfalto hasta que encontremos un puente sobre un riachuelo. Lo cruzamos y nada más hacerlo giramos a la derecha dejando el caserío Loidi a nuestra izquierda.</p> | | |
| 2 | Loidi | 1,2 Km. | Loidi |
| | Altuera/Altitud: 12 | Datum ED50: 583679 - 4789537 | Denbora/Tiempo: 0:21 |
| | <p>Hurrengo bidegurutzean eskuineko bidea hartuko dugu erreka ezkerreko aldetik joanaz, asfaltozko bidetik. Aurrera jarraituko dugu eta eskuinetara kurba egiten duen gunen batean bide nagusia utziko dugu.</p> <p>Junto al caserío Loidi hay una bifurcación. Tomaremos la pista de la derecha que, sin subir, continúa paralela al riachuelo. Tras atravesar un grupo de caseríos y sidrerías, y nos vayamos separando del riachuelo, hay que abandonar la pista que seguimos, a la izquierda.</p> | | |
| 3 | Desbideraketa | 1,6 Km. | Desvío |
| | Altuera/Altitud: 19 | Datum ED50: 583793 - 4789184 | Denbora/Tiempo: 0:28 |
| | <p>Puntu honetan, ezkerretara aldapa gora ateratzen den hartxintzarrezko bidea hartuko dugu. Aldapa gora jarraituko dugu, 200 bat metrotara bidegurutze garbi batekin topo egin arte.</p> <p>Así pues, tomaremos una pista carreteil que sale a nuestra izquierda y dando una curva asciende decididamente. Ascenderemos unos 200 metros hasta encontrarnos con una bifurcación.</p> | | |
| 4 | Bidegurutzea | 1,8 Km. | Bifurcación |
| | Altuera/Altitud: 48 | Datum ED50: 583955 - 4789104 | Denbora/Tiempo: 0:33 |
| | <p>Hemen, eskuinetara joko dugu, argindarren zurtoinen norabide bera hartuaz. Bidean jarraituko dugu ikuilu baten parean dagoen pinudiaren albotik pasatuz. Bertan hartxintzarrezko bidea zementuzko bide bihurtzen da. Horrek, asfaltozko bide nagusira eramango gaitu.</p> <p>Tomaremos el camino de la derecha, siguiendo así la misma dirección que una línea eléctrica. Más adelante pasaremos junto a un pinar y unas cuerdas. En este punto la pista carreteil se hace más firme, de cemento. Debemos continuar ascendiendo sin pérdida hasta encontrarnos de nuevo con el camino de asfalto.</p> | | |
| 5 | Asfaltozko bidea | 2,6 Km. | Camino de asfalto |
| | Altuera/Altitud: 125 | Datum ED50: 584400 - 4788853 | Denbora/Tiempo: 0:45 |
| | <p>Topatuko dugun bidegurutzetik, eskuinetara begiratzuz gero, Oindi mendia ikusiko dugu. Oindiren babesean aurkitzen diren etxeetarantz joango gara, hau da, eskuinetara.</p> <p>Llegando al cruce de asfalto, a nuestra derecha veremos el monte Oindi. Girando a la derecha nos dirigiremos hacia él, en concreto al grupo de caseríos que podemos observar en la falda de ese monte.</p> | | |
| 6 | Pardiolatxikiko bidegurutzea | 3,1 Km. | Cruce de Pardiolatxiki |
| | Altuera/Altitud: 148 | Datum ED50: 584771 - 4788532 | Denbora/Tiempo: 0:53 |
| | <p>Baserrien arteko bidegurutzean, informazio-panelen artean, ezkerretara hartuko dugu. Ondoren Txabolategi baserriaren albotik pasatuaz aurrera egingo dugu.</p> <p>En el cruce entre los caseríos, entre los paneles informativos, tomaremos la pista de la izquierda. Tras pasar en seguida junto al caserío Txabolategi, continuamos hasta el próximo cruce.</p> | | |


7	Lepatxikiko bidegurutzea	3,4 Km.	Cruce de Lepatxiki
	Altuera/Altitud: 165	Datum ED50: 584950 - 4788784	Denbora/Tiempo: 0:58
	Ibilbidearen puntu altuenera iritsi gara. Bide nagusia jarraitu eta, pinuen artetik beheruntz jaisten den bidea hartuko dugu. Pinuak bukatu eta aldapa behera arintzen denean, ezkerretako bidea hartu gabe, aurrean ikusten den baserriaren albotik pasako gara. Llegamos al punto más alto del recorrido. Seguimos el camino principal, tomando la pista que entre pinos descendiendo fuertemente. Al salir del pinar y sin hacer caso a la pista que sale a nuestra izquierda, continuamos de frente pasando junto a un caserío.		
8	Ibilbide berdea	4 Km.	Sendero verde
	Altuera/Altitud: 100	Datum ED50: 584929 - 4789350	Denbora/Tiempo: 1:05
	Gure bidea marka zuri eta berdez seinaleztatutako ibilbide batek zeharkatzen du. Guk marka urdin eta zuriei egingo diegu kasu, bide nagusia jarraituz beti ere. Baserri multzo bat zeharkatu ostean, bideak sigi-saga moduko bat egiten du aldapa behera Lastaolaberri baserriraino. En breve nuestro recorrido se cruza con un sendero local marcado en verde-blanco. Lo ignoraremos y seguiremos nuestro recorrido marcado en azul-blanco, siguiendo siempre el camino más evidente. Atravesaremos un grupo de caseríos y descenderemos hasta encontrarnos, tras un zig-zag, con el caserío Lastaolaberri.		
9	Lastaolaberri baserria	5,1 Km.	Caserío Lastaolaberri
	Altuera/Altitud: 45	Datum ED50: 584311 - 4790089	Denbora/Tiempo: 1:20
	Bidegurutze asko dagoen arren, guk Lasataola-berri oso-oso inguratuko dugu, baserria beti ere ezkerrean dugularik. Bertatik aldenduko gara aldapa gora, konifera multzo baten ondotik. Asfaltozko bide gorabeheratsua jarraituko dugu sagarrondo artetik, negutegiak ondoan dituen gunen zabal bateraino. Debemos bordear el caserío Lastaolaberri totalmente, dejándolo a nuestra izquierda. Nos alejaremos del caserío subiendo una pequeña cuesta junto a unas coníferas. Continuaremos por camino de asfalto que entre manzanos y cortos ascensos y descensos, nos llevarán hasta una explanada junto a unos invernaderos.		
10	Elorrabi	6,1 Km.	Elorrabi
	Altuera/Altitud: 18	Datum ED50: 584401 - 4790058	Denbora/Tiempo: 1:30
	Bertan, Elorrabi sagardotegia topatuko dugu. Sagardotegiaren paretik, ibaiertzeko zuhaitzen artean, begi bistan izango dugu zubi esekiaren sarrera. Elorraitik, asfaltozko bideari jarraituz, Iparragirre sagardotegiaren albotik pasako gara. Hemos llegado a la sidrería Elorrabi. Frente a ella podemos divisar entre los árboles que bordean el río Urumea, la entrada al puente colgante. Continuamos el camino asfaltado por el que veníamos andando y desde Elorrabi, siempre por el camino más evidente, llegaremos hasta la sidrería Iparragirre.		
11	Sagardotegiak	6,7 Km.	Sidrerías
	Altuera/Altitud: 18	Datum ED50: 584308 - 4789623	Denbora/Tiempo: 1:40
	Hurrengo sagardotegira (Altzueta) iritsi aurretik bidegurutze batekin egingo dugu topo. Bertan, ezkerretara aldapa gora doan bidea hartu gabe, asfaltozko bide nagusia jarraituko dugu, erreka baten gainetik igaroz. Bide hau jarraituko dugu, galtzeko arriskurik gabe, berriro ere Loidira iritsi arte. Antes de llegar a la siguiente sidrería (Altzueta) hay un cruce. Aquí, dejando de lado la pista que asciende a la izquierda, y tras pasar por encima de un pequeño riachuelo y siguiendo siempre el camino más evidente, llegaremos en pocos minutos a Loidi.		
2	Loidi	7,3 Km.	Loidi
	Altuera/Altitud: 12	Datum ED50: 583679 - 4789537	Denbora/Tiempo: 1:45
	Bertan, ibilbide zirkularra ixten da eta abiapuntura iristeko hasierako bide bera egingo dugu kontrako norabidean. En éste punto se cierra el recorrido circular y para llegar al punto donde iniciamos el recorrido, no nos queda mas que recorrer en dirección contraria el tramo que ya recorrimos al inicio y que nos devolverá hasta el punto de partida.		
0	Portu auzoa - Lonja	8,6 Km.	Barrio Portu - Lonja
	Altuera/Altitud: 10	Datum ED50: 583416 - 4790688	Denbora/Tiempo: 2:00

Sagardotegiak



SAGARDOTEGIAK

Inongo zailtasunik gabeko bidea, umeekin egiteko modukoa. Ez dago kotxearen beharrik hasiera puntura iristeko eta nahi izanez gero ere mendi-bizikletarekin egin daiteke bide osoa.



Recorrido sin dificultad, apto incluso para ser realizado con niños. Para ir desde el pueblo hasta el punto de partida no es preciso coche y además, puede ser también recorrido en bici de montaña (tan sólo un pequeño tramo puede resultar algo duro para los más "peques").

Portu auzoa eta lonja

A

Barrio Portu y Lonja

Garai batean Hernaniko baso eta burdinoletatik ateratzen zen egur, ikatz eta burdinak Donostiara eramateko modu bakarra Portutik igarotzen ziren gabarra bidezkoa zen. Hau dela eta Hernaniko Portu auzoa oso gune garrantzitsua izan da Hernaniko ekonomiarentzat. Bestalde, lonja ere bazen portuan bertan, eta egun, etxebizitza bihurturik etxeak zutik darrai.



Portu auzoko Lonja

Lonja del barrio Portu

En un tiempo, el medio utilizado para llevar a San Sebastián toda la madera, el carbón y el hierro que se obtenía de los bosques y ferrerías de Hernani se transportaba por río en barcazas que pasaban por el barrio Portu. Por ello, éste lugar ha sido un enclave importante para la economía de Hernani. Prueba de ello es la lonja que, aún hoy en día (utilizada para vivienda) podemos observar al inicio del recorrido.

Sagardotegiak

B

Sidrerías

Kasualitateak hala izatea nahi duelako edo, "Hernani" toponimoaz hitzegiten duen lehen idazkia (1014. urtekoa) bera da Euskal Herrian sagarra edo sagarrondoei buruz hitzegiten duen lehen izkribua: "Eman eta eskaini egiten dugu, itsasertzean, Hernani izeneko inguruan, San Sebastián izeneko monastegia, bere lur, sagarrondo, arrantza itsasontziekin..."

Ehundaka urte beranduago, oraindik ere Hernaniko paisaia ohikoak dira sagardotegi alboetako sagarrondo betetako lurrak. Izan ere, sagardoak eta sagardotegiak Hernaniko historiaren parte izan dira eta egundoko garrantzia izan dute herriaren ekonomian eta familia askoren bizimoduan. Egun, urtarilaren erdialdean hasi eta Aste Santurarte txotx garaia ospatzen da, sagardotegiak eta Hernani sagardoa dastatzeko asmoz datorren jendez betetzen den garaia.



Sagarrondoa

Manzano

No se sabe si es porque la casualidad así lo ha querido, el primer escrito en el que aparece el toponimo de "hernani" (del año 1014) resulta ser también el primero de Euskal Herria en el que aparece cita sobre los manzanales: "Doy y confirmo, en los confines de Hernani, a orilla del mar, aquella iglesia de San Sebastián, sus tierras, manzanales, barcos de pesca..."

Cientos de años después, y sobre todo junto a las sidrerías, todavía hoy son abundantes las tierras con plantaciones de manzanos. Sin duda alguna la sidra y las sidrerías han sido parte de la historia de Hernani y de gran importancia para la economía del pueblo y la forma de vida de muchos de sus vecinos. Actualmente, desde mediados de enero hasta Semana Santa se suele celebrar la temporada del "Txotx", en la que se acercan muchas personas con intención de visitar las sidrerías.

Urumea ibaia**Río Urumea**

1940an industria erreka ertzean kokatzen hasi zen heinean Urumea ibaira isurtzen zituzten hondakinak direla eta, ibaiaren ur-kalitatea asko jaitsi zen, bertan zegoen bizi guztia desagertu zelarik. 1970etik aurrera, aldiz, depuradoreen agertzearekin gauzak aldatzen joan ziren eta egun, izokina eta amuarraina bezalako kalitateko uren beharra duten arrainak ikus daitezke Urumean.



Urumea ibaia
Río Urumea

A medida que, hacia el año 1940, comenzaran a afincarse industrias junto al río y debido a los vertidos que estas hacían a su cauce, la calidad de sus aguas mermó seriamente, llegando a desaparecer casi toda forma de vida en ellas. A partir de 1970, y debido principalmente a la instalación de depuradoras, la situación mejoró sustancialmente. Hoy en día la calidad de sus aguas es lo bastante buena como para poder verse en ellas ejemplares de truchas y salmones.

Urumeako zubi esekiak**Puentes colgantes del Urumea**

Zubiak oso zaharrak ez diren arren, esekiak izateak nolabaiteko berezitasuna ematen die. Bestalde, Elorrabikoari dagokionez, 1978an Hernaniko banderari zegokion estropada jokatzeko ari zela, zubian zegoen ikusle kopuru handia zela eta, zubiak hartu zuen pisuagatik puskatu eta hainbat pertsona hil zen. Egun horretatik, zoritxarrez, Elorrabiko zubia Hernaniko historian sartu da.



Elorrabiko zubi esekia
Puente colgante de Elorrabí

A pesar de no ser muy antiguos, el hecho de ser colgantes les da cierto encanto. Además, por lo que respecta al de Elorrabí, el año 1978 en el transcurso de las regatas "Bandera de Hernani" que se celebraban en ese lugar durante las fiestas patronales, el puente, repleto de gente, se rompió y murieron numerosas personas. Desde ese día este puente pasó a forma parte, desgraciadamente, de la historia de Hernani.

Comète sarekoen oroigarria**Monumento a la red Comète**

1939an II Mundu gerran naziek Belgika, Holanda, Luxemburgo eta Frantzia hartu ostean, Comète izeneko sarea sortu zen Belgika inguruan zeuden Britainiar pilotuak Gibraltarrera eta Portugalera eramateko, bertan salbu egon zitezkeen. Dena den, arazo handienetako bat Euskal Herriko Iparraldetik Hegoalderako muga zeharkatzea izango zen, Frankistek kontrolatzen baitzituzten inguru hauek. Muga zeharkatze honetan hainbat hernaniar oso garrantzitsuak izan ziren. Hau dela eta, Osinaga auzoan euren oroimenean eginiko oroigarria jarri zen 2005ean.



Comète sarekoen oroigarria
Monumento a la red Comète

Cuando en 1939 durante la Segunda Guerra Mundial los nazis ocuparon Bélgica, Holanda, Luxemburgo y Francia, se formó la red Comète con el fin de llevar a salvo a los pilotos británicos que había en los alrededores de Bélgica hasta Gibraltar o Portugal. Pero atravesar la frontera entre Iparralde y Hegoalde constituía un serio problema debido a que los franquistas controlaban los alrededores de la misma. Entre los colaboradores de ésta red había varios hernaniarras. En reconocimiento de su labor, el año 2005 se levantó un monumento sito en Osinaga, junto al caserío Loidi.